

III. PARTE-HARTZE SAIOA (Iritziak Erkatzeko Saioa + Herritarren Foroa), BILBO METROPOLITARRAREN LPParen DIAGNOSTIKOARI buruzkoa

Data: 2017/05/30

Lekua: Portugaleteko Santa Klara Kultur Etxea

Iraupena: 10:00-13:00 eta 18:00-20:00

Bertaratutakoen kopurua: Iritziak Erkatzeko Saioa (14) + Herritarren Foroa (9)

BFAko ordezkariak

| Izena | Kargua |
|--------------------|--------------------------------------|
| Idoia Garay | Lurralde Antolamenduko Ataleko burua |
| José Crespo | Lurralde Antolamenduko Atala |
| Elisa Cano | Lurralde Antolamenduko Atala |
| Jose Manuel Alonso | Lurralde Antolamenduko Atala |
| Domingo Ruiz Elua | Lurralde Antolamenduko Atala |

Teknikariak

| Izena | Enpresa |
|----------------------------------|--|
| Aitor Sarria | Estudio-K |
| Cristina López | Basoinsa |
| Ana Izquierdo Lejardi | Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental |
| Iñaki Romero Fernández de Larrea | Paisaje Transversal |
| Aida López Urbaneja | Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental |
| Marta Villota | Paisaje Transversal |

Saioari hasiera ematea

Ana Izquierdo parte-hartze taldeko kideak eskerrak eman dizkie bertaratutako pertsoneri eta, bereziki, tokiko teknikarier, jardunaldia antolatzen laguntzeagatik eta jardunaldia egiteko behar zituzten guneak prestatzeagatik.

Hala, saioaren diagnosiko-fasea oso garrantzitsua dela azaldu du laburki, eta bi helburu nagusi dituela: batetik, lantalde teknikoak **diagnostikoaren emaitzak aurkeztea**; bestetik, diagnostikoaren emaitza horiei buruzko **iritziak erkatzea**, bai teknikariek (goizean *iritziak erkatzeko saio* bat eginez) bai herritarrek (arratsaldean *herritarren foro* bat eginez).

Diagnostikoaren aurkezpena

Hurrengo 45 minutuetan, gutxi gorabehera, EstudioK-eko **Aitor Sarria** jaunak eta Basoinsako **Cristina López** andreak hitza hartu eta diagnostikoaren emaitza garrantzitsuenak azaldu dituzte.

Lan-dinamikak

Horren ondoren, Paisaje Transversal-eko **Iñaki Romero** jaunak lan-dinamika azaldu du: bertaratuak bi mahaitan banatu ziren eta mahai bakoitzak honako lau gai hauetako bitan lan egin behar zuen:

- A. Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna
- B. Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak
- C. Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea
- D. Mugikortasuna eta logistika, Baliabideen kudeaketa jasangarria

Mahai guztiek lau fase igarotzen dituzte:

1. Proposatutako orientazioak balioztatzea, haiek argitzea eta beste batzuk proposatzea.
2. Garrantziaren arabera lehentasuna ematea.
3. Premiaren arabera lehentasuna ematea.
4. Jarduera eta orientazio hauek lortzeko proiektu zehatzak proposatzea.

Talde bakoitzeko kideek mahaiz aldatu beharko dute bigarren fasean (txandakatu egin behar dute, bi mahaietan parte hartzeko).

Arratsaldeko saioan (Herritarren Foroa), dinamika egokitzen da eta talde berean gai guztiak lantzen dira.

Emaitzak

IRITZIAK ERKATZEKO SAIOAREN 1. MAHAIA:

- **Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna**
- **Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak**

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENENKO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

- 1 *“Bilboko itsasadarraren inguruan antolamendu globala eta orekatua planteatzea, baita haren udal-plangintzen bateragarritasuna ere”*
 - Banaketa ekonomikoa ez geratzea Bilbon soilik.
 - Bilbao Ría 2000 sozietatean egotea aukera paregabea izan zen itsasadarrak Bilbon duen zatia biziberritzeko.
 - Planifikatutakoa bete da, behinik behin.
 - Itsasadarra eremu funtzionalaren ardatz nagusi gisa erabiltzea.
 - Udalerriaz gaindiko kudeaketa –eskualdekoa– egingo lukeen erakunde metropolitarra, Bilbao Ría 2000 bezalakoa.
- 2 *“Itsasadarra birsortzea eta berriz naturalizatzea, erabilera publikoko gune gisa balio dezan”*
- 3 *“Lurzoru industrial zaharkitu eta hutsen biziberritzeari heltzea, eta horretarako kudeaketa- eta finantziario-tresnez hornitzea”*
 - Birsortze- eta deskontaminazio-izapideak erraztea.
 - Eskualde-ikuspegia ezarri behar da kudeaketa-erakunde baten bitartez.
 - Lurzoruaren deskontaminazioa finantziatzeko arazoak.
 - Gainera, horrelako lurzoruek jada badute beharrezko azpiegitura.
- 4 *“Oraindik garatu ez diren dentsitate baxuko zenbait gune birdentsifikatzea eta haien kategoria aldatzea (urbanizagarri izatetik landagune izatera aldatzea)”*
 - Bilbon, Trapagaranen eta Santurtzin jada ari dira hori egiten.
- 5 *“Gure lurraldeko espazioa mugatua dela kontuan izanik, lurzoru berriak industria-jardueretarako okupa daitezen saihestea, hutsik dauden lurzoruak birsortu arte”*
 - Inbertsio publikoa beharrezkoa da.
 - Lurzoruen deskontaminazioari lehentasuna ematea.
- 6 *“Enplegu-eskaintzaren eta biztanleriaren arteko desoreka murriztea, premia handieneko udalerrietan jarduera sustatuta”*
 - Kontuan hartuz lurzorurik ez dagoela, nola egin daiteke hori?
- 7 *“Udallerriak ekipamenduekin lotuko lituzkeen sare bat sortzea, Done Jakue Bidea, Bilboko Inguruko Berdegunea, itsasoko bidea eta Bilboko Burdin Hesia oinarri gisa hartuta”*
 - Tokiko pasealeku eta konexioak eta udalerriaz gaindikoak lotzea.
 - Santurtzi/Portugalete/Sestao elkarren ondoan badaude ere, oinezkoentzako bideak ez daude lotuta.
 - Ondo legoke.
 - Eratzun berdearen kontzeptua hiri-bilbean txertatzea zaila da.

Hona hemen **GARRANTZI TXIKIENEO ETA PREMIA HANDIENEO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

- 1 *“Biztanleria zahartzen ari denez, ekipamendu sozialen eskaria handiagotzen ari da; arazo horri erantzutea”*
- 2 *“Erabilera bat baino gehiago nahasten dituen lurralde-eredu trinkoa sustatzen jarraitzea, bizitegi-erabilera eta jarduera bateragarriak ez ezik, hainbat jarduera ekonomiko elkarrekin ere nahasten dituen lurralde-eremua, hain zuzen”*
 - Nagusientzako edo mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako hiri-eremuak eta ekipamenduak.
 - LPPk erabileren banaketa antolatu beharko luke, baita erabilera bateragarriak sustatu ere.
 - Bilbon kanpalekuak sortzeko proposamenak.
 - Zer eredu ekonomiko etorriko da? Prest egongo al gara? Nola?
 - Hasiera-hasieratik, Bilbori esan zitzaion ez zuela zertan lurzorua erreserbatu zaharrentzako egoitzetarako.
 - Zaharren egoitza publikoak beterik daude, eta pribatuak, berriz, hutsik. Beharbada, Aldundiak bere gain hartuko ditu pribatuak, eskariari erantzuteko.
 - Ez dago zerbitzu mankomunaturik *ezkerraldean*.
- 3 **Proposamen berria:** Garraio publikoak jada existitzen diren premiak bete behar ditu.
 - Itsasadarreko udalerrak lotzeko garraio publikoa.
- 4 *“Edukiera handiko garraio publikoko geltokien inguruko lurzoruetan jarduera sor dadin faboratzea”*
 - Industrialde guztietan zirkulazio- eta aparkaleku-arazoak daude, ibilgailu pribatua asko erabiltzen baita.
- 5 *“Benetan eskuragarri dauden lurzoru industrialen inbentario zehatz bat egitea, horrelako tokiak optimizatze aldera”*
 - Hemen ez dago lekurik.
- 6 *“Hiri-merkataritza bultzatzea, merkataritza-ekipamendu handien ordezt”*
 - Ordutegiak zabaldu behar dira.
 - Udalerri askok ez dute merkataritzaguneak instalatzeko ahalmena mugatu nahi.

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA TXIKIENEO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

- 1 *“Parke teknologiko berriak hirien aldameneko eremuetan kokatuta egotea (derrigorrean)”*
- 2 *“Hiri-garapen berrienak birdentsifikatzea eta tinkatzea, haien konexioa garraio publiko bidez eta haien zentralitatea faboratze aldera”*
 - Garraio publikoa ez da industriaguneetaraino iristen (portuaren adibidea ipini dute).
 - Edo “Erandioko intermodalaren” antzeko toki bat izatea.
- 3 **Proposamen berria:** Etxebizitza-proposamenak hiru konponbide hauetarantz bideratzea: etxebizitza hutsak merkatuan ipintzea; birmoldaketa; eta birdentsifikazioa.
 - Identifikatutako kasuetan esku hartu behar da.

IRITZIAK ERKATZEKO SAIOAREN 2. MAHAIA:

- Mugikortasuna eta logistika, eta Baliabideen kudeaketa jasangarria

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENeko** orientazioak, lehenetsun handienekotik txikienera:

1. *“Tren bidez Bilboko Portua hiriguneekin konektatzea, interferentziarik gabe, salgaiak garraiatzeko”*
 - Horretaz gain, komentatu dute behar-beharrezkoa dela metro-linea propio bat izatea, itsasadarretik doanaz aparte, Muskiz, Ortuella, Gallarta, Trapagaran eta abar lotuko dituen, egungo trenbidearekin ondo konektatuta ez baitaude udalerririk horiek.
2. *“Txartel bakar bat sortzea garraio publikorako”*
 - Tarifa bateratuari eta ordutegi bateragarritasunari garrantzi handiagoa ematea zerbitzu guztietarako txartel bakarrari baino.
 - Garraio publikoaren maiztasunak hobetzea (leku askotan, hala nola Trapagaranen, lineak eta geltokiak badaude, baina oso maiztasun txikiarekin iristen da garraio publikoa bertara).
3. *“Tren bidez aireportua eta Bilbo hiriko gunea lotzea, bidaiariak garraiatzeko”*
 - Trenari jarraitutasuna ematea (linea aprobetxatzea) aireporturaino irits dadin, kongestioa arintzeko eta saihesteko eta garraio pribatuak eragindako arazoa leuntzeko.
 - Trenak bi funtzio izango lituzke: aireportuarekiko konexioa izatea eta Txorierriranzko errepidea autoz deskongestionatzea.
 - Arazoa: autobusa ez da segurua, ez du fidagarritasunik ematen aireportura iristeko.
 - Barneko nukleoak ukituko lituzkeen metro-linea bat proposatu dute.
 - Unibertsitatearekiko eta ospitaleekiko konexioa bultzatzea.
4. *“Automobil pribatuaren erabilera murriztea, garraio kolektibo garbieraren erabilera bultzatzea”*
 - Aparkaleku-politika funtsezkoa da: garraio kolektiboa sustatzea ez ezik, automobilari lekua kentzea edo “oztopoak ipintzea”.
 - Zirkulazioak berrikustea, bizikleta barnean hartuko lukeen mugikortasun-plan bat planteatzea (leku batetik bestera bizikleta bidez joateko zailtasunak dakarren oztopo psikologikoa gainditzea). Bizikleta bidezko desplazamendu segurua bultzatzea.
 - Txirrindularien eta oinezkoen zirkulazioa bateragarri egitea zaila dela kontuan hartzea.
 - Intermodalitatea eta bizikletetarako aparkalekuak lehenestea, baita bizikletak garraio publikoan sartu ahal izatea ere.
 - Ezkerraldean edo eskuinaldean ibai bidezko garraioa ere sustatzea.
 - Ez dute uste metroak autoaren erabilera murrizten laguntzen duenik; metroak lehen oinez joaten ziren edo aldiriko trena hartzen zuten pertsona guztiak hartu dituela uste dute; beraz, lehen automobila erabiltzen zuten pertsonak automobila erabiltzen jarraitzen dutela deritzote.
 - Gainera, aipatu dute Bilbo osoko mugikortasunerako egokiena garraio publikoa erabat “garbia” edo “elektrikoa” izatea izango litzatekeela.
5. Proposamen berria: Eremu osoko mugikortasuna garraio garbian oinarrituta egotea: publikoa eta elektrikoa.

Hona hemen **GARRANTZI HANDIENKO ETA PREMIA TXIKIENKO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

6. *“Metropoli-eremutik kanpoko tokiekiko mugikortasuna eta loturak hobetzea, abiadura handiko trenbidearen bitartez”*
7. *“Bizikleta bidezko mugikortasun-ahala areagotzea, dauden trazadurak egituratuz eta osatuz, eta haien eta garraio kolektiboaren arteko truke modalak erraztuz”*
 - Bizikleta garraio bide gisa erabil dadin bultzatzea, soilik aisialdirako erabili ordez.
 - Hiri-erabilera eman nahi bazaio, eta hemengo orografia kontuan izanik, bizikleta elektrikoak erabiltzea proposatu dute.
 - Aldirietako aparkalekuak. Toki garrantzitsuetan aparkaleku-poltsak ipintzea. (Santurtzi)
 - Irisgarritasuna hobetzeko erreminta/ibilgailu pertsonalizatuak.

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA TXIKIENKO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

8. *“Garraio kolektiboari dagokionez, plataforma eskusiboko (autobusa edo tranbia) sare zabalagoa garatzea, ordutegia fidagarriagoa izan dadin”*
 - Udalerrri bakoitzaren bideragarritasunaren araberakoa da hori (bidearen zabalera, ordutegi-premiak, eta abar).
 - Okupazio handiko ibilgailuetarako erreia Artatzako errepidean?
 - Konektibitateari dagokionez, aipatu dute zubiak falta direla, baita ezker aldearen eta eskuinaldearen arteko loturak eta unibertsitatearekiko konexioa hobetzeko moduak ere.
9. *“Udalerrri bakoitzak energia jasangarrirako berezko ekintza-plan bat idaztea, udalerrriko energia-eredua zehaztuz”*

- **Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea**

Hauei eman zitzaien **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENA:**

1. *“Paisaia –kostaldekoa, nekazaritza/basozaintzakoa, meatzaritzakoa eta hirikoa/industrialababesteko eta antolatzeko neurriak abiaraztea”*
 - Paisaiaren ekintza-planen bitartez paisaiak babestea.
 - Babestu beharreko ondarea duten tokiei buruzko azterlan ekonomikoak egitea (paisaia). Planteatu da, baina ez dago azterlanak sustatzeko eta bideragarri egiteko behar adina finantziatorik.
 - Eremu osorako eskaintza turistikoa bat sustatzea, lurraldeko nodo nagusiak aktibatuz (Pobaleko Burdinola, Muñatoizko San Martin gaztelua, eta abar) eta konektatuz.
 - Antolamendua gauzatzeko modukoa izan dadin erreklamatu dute (hots, soilik paperan gera ez dadin). Paisaiaren ekintza-planen ondoren jarraitutasuna egon dadin bultzatzea. Erremintari behar dituen bideragarritasuna eta finantziarioa ematea, geroago planean agindutako ekintzak gara daitezten.
2. *“Igarobide ekologikoen eskualde-sare bat sortzea, eremu mugakideekin ez ezik, tokiko berdeguneen sarearekin ere jarraitutasuna izango duena”*
 - Oso garrantzitsua dela esan dute, udaletan askotan eraztunak, uharte berdeak eta abar aurreikusten badira ere, gerora arazo bat sortzen baita: aldamenekoak ez du halakorik aurreikusten, eta sistemarekin ez dute jarraitzen.
3. *“Mendi babesleen katalogo bat sortzea, basoen kudeaketa egokia eragingo lukeen katalogo bat, hain zuzen: selektiboagoa eta ez hain intentsiboa”*
4. *“Azpiegitura berdeen eta azpiegitura 'grisen' arteko gatazka posibleak identifikatzea eta elkarreragin horiek kudeatzeko neurriak ezartzea”*
 - Ikuspegi holistikoa izan behar dela esan dute; beste modu batean esanda, arazoei edo gatazkei ez heltzea sektoreka, osotasunean baizik. Horretarako, udalerriek arazoaren multzoa zein den adostu beharko lukete (eta ez banan-banan), eta horrela aurkeztu.
5. *“Lurraldean atzemandako gune degradatuetan (zabortegiak, hondakindegia, industria-aurriak, harrobiak eta abar) ingurumen-hobekuntzarako jardunak sustatzea”*
 - Degradatutako tokiak lehengoratu egin behar direla adierazi dute bertaratuek, ez soilik ohiko landareztatze-proiektuen bitartez, beste erabilera batzuk planteatzen dituzten edo beste jarduerak batzuk barnean hartzen dituzten proposamenen bitartez ere bai.
 - Kutsatutako lurri dagokienez, erabilera-aldaketa sustatu behar dela uste dute, jarduerak eta lurzorua ezaugarri horiek (korapilatsuak) bateragarri egiteko. Kontuan izan behar dugu sekula ez dela erabateko deskontaminazioa lortzen.
 - Udalerrien sustapena erraztuko duten ekipamenduak garatzea.
 - Udal-lurraldearen barnean natura-intereseko puntuei dagokienez, udalerriek informazioa emateko gaitasuna izatea.
 - Degradatutako tokiak lehengoratzeko, finantziario-lineak aurkitu beharko lirateke (ez da batere erraza horrelako proiektuak aurrera ateratzea).
 - Dirua behar da.

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA TXIKIENKO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

6. *“Urbanizagarriak diren baina oraindik urbanizatu ez diren nekazaritza-balio handiko lurzoruei kategoria hori kentzea”*
 - Adibide gisa, Ibarra aipatu dute: partaidetza-prozesua egin ondoren, herri horrek bertako urbanizazioa gelditzea eta nekazaritza-jarduera betikotzea erabaki du.
7. *“Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera ez deslokalizatzea, elikadura-burujabetzarako mesedegarria baita”*
 - Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari legitimitate handiagoa ematea, baina burujabetzaren “ametsa” lortzera iritsi gabe. Zaila da, eremuaren ezaugarriak kontuan izanik.
 - Auzo-lanarekin loturako jarduera areagotu dadin sustatzea, auzoan bertan.
8. *“Diru-sarrerak lortzeko beste iturri batzuk sustatzea, nekazaritza-produktuekin eta nekazaritza-turismoarekin lotutako iturriak, hain zuzen”*
9. *“Ibai-bide nagusiak ijezketagunez hornitzea, bi erabilera izan ditzaten: batetik, aisialdia; bestetik, hiribideen kontrola”*
 - Ezkerraldean hori oso korapilatsua dela uste dute.
 - Azaldu dute Bilbo Metropolitarran kutsatutako toki asko daudela uholde-zelaigune horietan, eta askok horretarako aukera ematen dutela.
10. *“Landaguneak zedarritzeko eta antolatzeko eta baserriak banatzeko irizpideak ezartzea, bertan behera gera ez daitezen”*

HERRITARREN FOROAREN 1. MAHAIA:**A. Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna****B. Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak****C. Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea****D. Mugikortasuna eta logistika, eta Baliabideen kudeaketa jasangarria**Hauei eman zitzaizkien **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENA:**

- 1. **Proposamen berria:** Meatzaritza-eremuan gehiago inbertitzea eta gune horri gehiago erreparatzea
- 2. *“Oraindik garatu ez diren dentsitate baxuko zenbait gune birdentsifikatzea eta haien kategoria aldatzea (urbanizagarri izatetik landagune izatera aldatzea)”*
 - Komunikazio-falta, etxebizitza, lurzoru industrialak.
 - Lurzoruak sailkapenez aldatzeak kezka eragiten diela adierazi dute. LPP bidez, HAPOn urbanizagarri gisa sailkatu ziren tokiei sailkapena aldatzeko aukera iradoki da, erreserba- edo nekazaritza-erabilera emateko.
- 3. *“Garraio kolektiboari dagokionez, plataforma eskusiboko (autobusa edo tranbia) sare zabalagoa garatzea, ordutegia fidagarriagoa izan dadin”*
- 4. *“Tren bidez aireportua eta Bilbo hiriko gunea lotzea, bidaiariak garraiatzeko”*
 - Isolatuta geratu diren tokietan intermodalitatea bultzatzeko eskatu dute, bereziki, meatzaritza-eremuan, ahaztuta dagoela hautematen baitute; metroa bertaraino iristeko aukera mahaigaineratu dute.
 - Garraio koherentea, nahikoa eta jasangarria.
 - Metroa eta garraioa Galdakaora.
 - *“Lurzoru industrial zaharkitu eta hutsen biziberritzeari heltzea, eta horretarako kudeaketa- eta finantziario-tresnez hornitzea”*
- 5. *“Bilboko itsasadarraren inguruan antolamendu globala eta koordinatua planteatzea, zeharkatzen dituen udalerrri guztiak bilduko dituena”*
- 6. **Proposamen berria:** Ekonomiari eta lurraldeari buruzko baterako proposamenak egitea.
- 7. *“Paisaia –kostaldekoa, nekazaritza/basozaintzakoa, meatzaritzakoa eta hirikoa/industrialababesteko eta antolatzekeo neurriak abiaraztea”*
 - Ekipamendu-falta edo, gutxienez, desoreka handia.

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA TXIKIENKO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

- 1. *“Automobil pribatuaren erabilera murriztea, garraio kolektibo garbieraren erabilera bultzatuz”*
- 2. **Proposamen berria:** Gazteentzako etxebizitzak sustatzea.

- 3. *“Igarobide ekologikoen eskualde-sare bat sortzea, eremu mugakideekin ez ezik, tokiko berdeguneen sarearekin ere jarraitutasuna izango duena”*
- 4. *“Natura-interes bereziko esparru berriak babestea eta sare ekologikoarekin lotzea”*
- 5. *“Ibai-bide nagusiak ijezketagunez hornitzea, bi erabilera izan ditzaten: batetik, aisialdia; bestetik, hiribideen kontrola”*
- 6. *“Mendi babesleen katalogo bat sortzea eta basoen kudeaketa egokia sortzea: selektiboagoa eta ez hain intentsiboa”*
- 7. *“Etxebizitza-proposamenak hiru konponbide hauetarantz bideratzea: etxebizitza hutsak merkatuan ipintzea; birmoldaketa; eta birdentsifikazioa”*
 - Etxebizitzari dagokionez, galdetu dute ea LPPak biltzen dituen gazteei (30 urtetik beherakoei) etxebizitza eskuratzea errazteko alderdiak.
- 8. *“Erabilera bat baino gehiago nahasten dituen lurralde-eredu trinkoa sustatzen jarraitzea, bizitegi-erabilera eta jarduera bateragarriak ez ezik, hainbat jarduera ekonomiko elkarrekin ere nahasten dituen lurralde-eremua, hain zuzen”*